# Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

## EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN LEGEAREN 10 GAKO

2016ko maiatzean onartutako legeak xedatzen du honako erakundeek osatzen dugula Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala (EHSS):

- **gizarte ekimenekoak** (ekintza boluntarioa; gizarte zibilaren parte gara -hartatik eta harentzako sortuak-, irabazi asmorik gabekoak eta parte-hartzaileak);
- **gizarte esku-hartze arlokoak** (gure jarduera gizarte zerbitzuen arloan burutzen dugu, enplegurako aukera sustatzen, arlo edo sistema ezberdinen arteko elkarreraginerako espazioak sortzen -soziosanitarioak, soziolaborala...- eta garapenerako lankidetza ahalbidetzen);
- **egoitza eta jarduera Euskadin ditugunok;**
- helburu nagusia honakoa dugunok: babesgabetasun edo gizarte bazterkeria egoeran bizi diren edo berdintasun eza, urritasuna edo menpekotasuna duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateen **gizarteratzea, garapenerako lankidetza eta eskubideen egikaritze efektiboa sustatzea**.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriak (2015) xedatzen du **3.500** erakundek betetzen ditugula ezaugarri horiek, soldatapeko **36.000** pertsonak eta **125.000** pertsona boluntariok osatuta, eta **%2,2ko** ekarpena egiten dugula EAEko BPGean.

## 10 CLAVES DE LA LEY DEL TERCER SECTOR SOCIAL DE EUSKADI

La ley, aprobada el 12 de mayo de 2016, establece que formamos parte del Tercer Sector Social de Euskadi (TSSE) las organizaciones:

- **de iniciativa social** (de acción voluntaria, que formamos parte de la sociedad civil y surgimos de ella y para ella, privadas, no lucrativas y participativas);
- **de intervención social** (que desarrollamos nuestra actividad en el ámbito de los servicios sociales, la promoción del acceso al empleo, los espacios de interacción entre ámbitos o sistemas como el socio-sanitario, socio-laboral, etc. y la cooperación al desarrollo);
- **con sede y actividad en Euskadi;**
- cuyo fin principal es **promover la inclusión social, la cooperación al desarrollo y el ejercicio efectivo de los derechos** de personas, familias, grupos, colectivos o comunidades que afrontan situaciones de vulnerabilidad o exclusión, desigualdad, desprotección, discapacidad o dependencia.

El Libro Blanco del Tercer Sector Social de Euskadi (2015) ha establecido que somos **3.500** organizaciones con estas características, con **36.000** personas remuneradas, **125.000** personas voluntarias y una contribución al PIB de la CAPV del **2,2%**.

# LEGEAREN 10 GAKO

**1** Euskadiko EHSSaren **aitortza juridikoa**.

EHSSari buruz mintzatzeko juridikoki aitortutako definizio bat daukagu dagoeneko, sektoreko erakunde guztiak barne hartzen gaituena.

**2** EHSSaren **definizio positiboa**, ekimen eta esku-hartze sozialeko erakunde gisa.

Legeak positiboki babesten gaitu, oinarrizko hiru alderditan oinarrituta: a) Gizarteratzea, garapenerako lankidetza eta eskubideen egikaritze efektiboa sustatzeko helburua; b) gizarte ekimeneko erakundeen berezko ezaugarriak; c) berezko ditugun jarduerak burutzea.

**3** **Elkarrizketa zibilaren** printzipioa sendotzea eta zabaltzea.

Legeak aitortu egiten du erakundeek eskubidea dugula herritarroi dagozkigun politika publikoetan parte hartzeko, fase guztietan, exekuzioan barne (elkarrizketa zibila). Era berean, sektore publikoan elkarrizketa zibila sustatzeko agindua ezartzen du, hala maila exekutiboan nola legegintza arloan.

**4** **Lankidetza publiko-sozialaren eredu mistoaren** aitortza eta sustapena, hala sistemetan nola erantzukizun publikoko sistemen arteko elkarreragin-esparruan.

Legeak lankidetza publiko-soziala planteatzen du sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarreragin-eremuetan, zerbitzuen horniduran, erreferente funtzio eta koordinazioan, bide-laguntza sozialean eta harrera, informazio, orientazio zein desbideratzeko funtzioetan.

**5** Kontratazio publikoaren esparrutik kanpoko **lankidetza publiko-pribaturako tresnak** sendotu eta zabaltzea: lankidetzarako itun, hitzarmenak eta akordioak.

Legeak esku-hartze sozialeko esparru osora zabaldu eta sendotu egiten du hitzarmen (sozialeko) erregimena, «herri administrazioen kontratazio-araudian araututako hitzarmenezko kontratu-modalitatetik bereizita», baita irabazi asmorik gabeko erakundeekin lankidetza-hitzarmen eta akordioak ere.

**6** **Euskal herri administrazioekin lankidetzan dihardugun erakundeen betebeharrak** sendotzea eta garatzea.

Legeak betebehar jakin batzuk ezartzen dizkie euskal herri administrazioekin lankidetzan, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketan edo interes orokorreko beste gizarte jarduera batzuetan dihardugun EHSSeko erakundeei.

**7** **Euskadiko hirugarren sektore soziala Sustatzeko Estrategia** osatzea.

Legeak xedatzen du Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren bitartez, EHSSa sustatzeko Estrategia osatu behar duela, sail ezberdinen arteko zein foru aldundien eta toki erakundeen arteko lankidetzaz, alde ezberdinen estrategiak uztartuta. Era berean, xedatzen du Eusko Jaurlaritzak urteko txosten bat egin behar duela EHSSa sustatzeko neurriei buruz.

**8** Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren **aitortza** eta haren ekarpena sustatzea, eta sektorea zein erakundeen arteko lankidetza **egituratzea**.

Legeak erakundeen eta EHSSko sareen ekimen bateratua planteatzen du, herritar eta gizarte eragile guztien artean EHSS eta bere ekarpena ezagutarazteko, haren ekimen ezberdinen berri emanda (bereziki komunikazio arloan).

**9** **Sektoreen arteko sinergiak eta osagarritasuna** sustatzea.

Legearen helburua da sektore ezberdinen osagarritasuna bideratzea eta horien artean sinergiak sustatzea. Hartara, beste sektore batzuen sustapenak EHSSan duen eragina ebaluatzea planteatzen du, baita enpresen eta EHSS arteko lankidetza bultzatzea ere.

**10** **Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia** sortzea.

Legeak Behatokia sortu du, EAEko Administrazio orokorraren tresna tekniko gisa. HSSari buruzko informazio eta ezagutzak bildu, eguneratu, sortu eta zabaltzeaz arduratuko da, eta, besteak beste, EHSSari buruzko biurteko txosten bat osatuko du.

# 10 CLAVES DE LA LEY

**1** **Reconocimiento jurídico** del TSS de Euskadi.

Al hablar del TSSE podemos partir ya de una definición jurídicamente reconocida que nos engloba a todas las organizaciones del sector.

**2** **Definición** del TSS en **positivo** como organizaciones de iniciativa e intervención social.

La ley nos define en positivo a partir de tres aspectos fundamentales: a) nuestro fin principal, promover la inclusión social, la cooperación al desarrollo y el ejercicio efectivo de los derechos; b) nuestras características como organizaciones de iniciativa social; c) y el tipo de actividades que nos caracterizan.

**3** Consolidación y extensión del principio de **diálogo civil**.

La ley reconoce el derecho de las organizaciones a participar en las políticas públicas que nos conciernen en todas sus fases, incluida la ejecución (diálogo civil) y establece el mandato de promover el diálogo civil desde el sector público, tanto a nivel ejecutivo como legislativo.

**4** Reconocimiento e impulso del **modelo mixto de cooperación público-social** en los sistemas y espacios de interacción entre sistemas de responsabilidad pública.

La ley plantea la cooperación público-social en la gestión de los sistemas y espacios de interacción entre sistemas, en la provisión de servicios, en la función de referente y la coordinación de caso y en el acompañamiento social así como en las funciones de acogida, información, orientación y derivación.

**5** Extensión y consolidación de **instrumentos de cooperación público-privada** ajenos al marco de la contratación pública: conciertos, convenios y acuerdos marco de colaboración.

La ley consolida y extiende a todo el ámbito de la intervención social el régimen de concierto (social), "diferenciado de la modalidad contractual de concierto regulada en la normativa de contratación de las administraciones públicas", así como los convenios y acuerdos marco de colaboración con organizaciones no lucrativas.

**6** Consolidación y desarrollo de las **obligaciones de las organizaciones que cooperamos o colaboramos con las administraciones públicas vascas**.

La ley establece una serie de obligaciones de las organizaciones del TSSE que cooperamos con las administraciones públicas vascas, en la provisión de servicios de responsabilidad pública, o colaboramos en otras actividades sociales de interés general.

**7** Elaboración de una **Estrategia de promoción del Tercer Sector Social de Euskadi**.

La ley establece que el Gobierno Vasco elabore, a través de la Mesa de Diálogo Civil de Euskadi, una Estrategia de promoción del TSSE de carácter interdepartamental y que las diputaciones forales y los entes locales elaboren las suyas propias coordinadas con esta. Asimismo, establece que el Gobierno Vasco elabore un informe anual sobre el conjunto de medidas de promoción del TSEE.

**8** Impulso del **reconocimiento** del Tercer Sector Social de Euskadi y su contribución, y de la **estructuración** del sector y la colaboración entre organizaciones.

La ley plantea una iniciativa conjunta de las organizaciones y redes del TSSE para dar a conocer el TSSE y su contribución, a la ciudadanía en general y a los agentes sociales, que incluye diversas acciones, principalmente de comunicación.

**9** Impulso de las **sinergias y complementariedad entre sectores**.

La ley busca la complementariedad de los diferentes sectores e impulsar las sinergias entre ellos y a tal efecto plantea evaluar el impacto de la promoción de otros sectores en el TSSE y promover la colaboración entre las empresas y el TSSE.

**10** Creación del **Observatorio Vasco del Tercer Sector Social.**

La ley crea el Observatorio como un instrumento técnico de la Administración general de la CAPV encargado de la recopilación, actualización, generación y difusión de información y conocimiento sobre el TSS, que, entre otros aspectos, confeccionará un informe bienal sobre el TSSE.

**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Sareen sarea Euskadiko Hirugarren Gizarte-sektoreko erakundeak biltzen dituen elkartea da.

Gizarte justuago, solidarioago, elkartuago eta parte-hartzaileagoa lortzeko sortu zen; pertsonei bideratu ordez, zuzenean ekonomiari zuzenduta dagoena. Proposamen eta alternatibak elkarlanean eraikitzeko gaitasun handiagoarekin gizarte gizatiarraren alde egitea du xede.

Gaur egun ondorengo erakunde-sozialen 14 sare biltzen ditu: Astialdi Sarea, EAPN, EHLABE, Elkartean, Federpen, Fedeafes, Fevas, Gizatea, Harresiak apurtuz, Hirekin, Hirukide, Lares, ONCE eta REAS.

Sareen Sarea es la asociación que agrupa a las redes de entidades del Tercer Sector Social de Euskadi.

Sareen Sarea surge para avanzar a una sociedad más justa y solidaria, más cohesionada y más participativa, más crítica con un modelo de desarrollo, excesivamente orientado a lo económico y no centrado en las personas, y con más capacidades para construir, de forma colaborativa, propuestas y alternativas, avanzando hacia un modelo de sociedad más humano.

Actualmente agrupa a las siguientes 14 redes: Astialdi Sarea, EAPN, EHLABE, Elkartean, Federpen, Fedeafes, Fevas, Gizatea, Harresiak apurtuz, Hirekin, Hirukide, Lares, ONCE y REAS.

**www.sareensarea.eu**
**info@sareensarea.eu**
**946 569 230**

Colabora / Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES